

ehbildu

elkarrekin
PODEMOS
iu



Eusko Legebiltzarreko EAJ-PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos-IU taldeok adierazten dugu:

Igor Gonzalez Sola euskal presoak irailaren 4an hil zen Martuteneko espetxean. Heriotza hori espetxeetan gertatu diren beste askori gehitu behar zaio; izan ere, asko dira espetxeetan hiltzen diren presoak, heriotza naturalagatik edo bere erabakiagatik.

Igor Gonzalez Solak, espetxean emandako denboragatik, aurtengo martxoan lortu behar zuen baldintzapeko askatasuna, orduan bete baitzituen auzitegiek ezarritako hogeituroko kondena hiru laurdenak.

Euskal preso batzuei aplikatzen zaien salbuespen-erregimenaren ondorioz, gainerako presoek aplikatzen zaien espetxe-araudiaren aplikazioa debekatuta dago haientzat.

2005eko martxoan espetxeratu zutenetik, Igor Gonzalez Sola izan da urruntze politika jasan duen presoetako bat. Badajoz, Valdemoro, Soria eta Martuteneko kartzeletan egon da.

Igor Gonzalez Sola ez da urruntze politika horren biktima bakarrik izan, tratamenduan zegoen preso gaixo bat ere bazen eta horrek, ustez, heriotza ekarri dio.

Balioa eman nahi diegu indar politiko gehien artean Gasteizko eta Iruñeko parlamentuetan, Batzar Nagusietan eta euskal udal ugarian lortu diren akordioei, euskal sindikalismoaren ahobatez kotasunarekin, egungo espetxe-politikaren erreforma sakon baten alde.

Ondorioz, Espainiako Gobernuari eskatzen diogu Gobernuko presidentek egungo espetxe-politika sakon aldatzeko adierazitako borondatea gauzatzeko, atzerapenik gabe eta honako hauek kontuan hartuta:

1. Urruntzeko politikaren amaiera eta, hala, eskatzen duten preso guztiak Euskal Herriko espetxeetara eramatea.
2. Gaixotasun larriak dituzten presoak aske uztea, espetxeko hormetatik kanpo beren gaixotasunei aurre egin diezaieten.
3. Graduen progresioa aplikatzea, gainerako presoekin gertatzen den bezala.

Julen Arzuaga
EH Bildu

Iñigo Iturrate
EAJ-PNV

Miren Gorrotxategi
Elkarrekin Podemos-IU